

POSTA ELEKTRONIKOA

Posta elektronikoa internetek eskaintzen duen zerbitzu bat da, eta bata bestegandik oso urrun dauden pertsonak elkarrekin ia bat batean komunikatzea ahalbidetzen du. Posta elektroniko bidal daitezke gutunak, mezuak, argazkia, irudiak, bideoak, musika, etab.

Aztertu irudia:




1. Idatzi hutsunean aukera zuzena:

- i. Mutikoa gutun bat bidaltzera doa _____ (posta arruntez/posta elektronikoz).
- ii. Gutuna _____ (pertsone bakar bat/hainbat pertsonari) iritsiko zaio.
- iii. Gaia dioen laukitxoan _____ (hartzailearen helbidea/mezuaren gaia) idazten da.

2. Aukeratu posta elektronikoak bidaltzeko eta jasotzeko beharreko diren gauzak:

- | | | |
|---|---|--|
| ☐ Ordenagailua | ☐ Gutunak idazteko papera. | ☐ Interneterako konexioa. |
| ☐ Gutun-azala | ☐ Igorlea | ☐ Hartzailea |
| ☐ Posta-elektronikoko programa | ☐ Postako zigiluak | ☐ Bolaluma |



3. Aztertu goiko posta elektronika eta erantzun galderak:

- Zein da hartzailearen korreoa?
- Zein da mezuaren gaia?
- Nola hasten da mezua?
- Zer dago atxikituta?

4. Lotu ikur bakoitza zertarako balio duen adierazteko.



Argazkiak eransteko balio du.



Dokumentu bat eransteko balio du.



Driven dugun dokumentua eransteko balio du.



Emotikonoak eransteko balio du.



Interneteko esteka bat eransteko balio du.

5. Idatz ezazu mezu bat zure irakasleari, eta atxikitu dokumentu edo argazki bat.

Gogoratu mezua ondo egon dadin bete beharko dituen baldintzak:

- **Helbidea:** zure irakaslearen helbidea idatzi beharko duzu.
- **Gaia:** Zeri buruz idatziko duzun jarri behar duzu.
- **Agurrak:** Postaren hasieran eta bukaeran agurtzea beharrezkoa da posta ondo egon dadin.